



Garatzeko bidean dauden herrialdeekin lankidetzako proiektuak egiteko diru-laguntzen 2017ko oinarri-arauak onetsi

Portugaleteko Udalaren Gobernu Batzordeak 2017ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, oinarri-arauok onartzea erabaki zuen.

Garatzeko bidean dauden herrialdeekin lankidetzako proiektuak egiteko diru-laguntzen 2017ko oinarri-arauak

Garapenaren lankidetzak, zorrotz aztertuta, Tokiko Administrazioaren eskumenen barruan ez egon arren, gai horretan aditu diren nazioarteko eta estatuko entitate batzuen sostengua du administrazio publikoek diru-sail zehatz bat hartzeko lankidetzako proiektuak finantzatu ahal izateko.

Hori guztia herrien arteko ezinbesteko elkartasunetik dator. Izan ere, xede du teknologia, esperientzia eta bitartekoak elkarri trukatu, hain garatuak ez dauden herriek beren arazoei eta beharrei erantzunak ematea.

Portugaleteko Udalak, krisi-garaia eta zailtasunak gorabehera, elkartasunez jokatzeko jarraitu nahi du eta ahalegindu nahi du herri horiei laguntzen, bitarteko gutxi izan arren. Zalantzarik gabe, beraien arazoak eta atzerapenak gure ingurutik gertu daude eta eragina ere izaten jarraituko dute.

Hezkuntza-mailako ikuspegi batetik ere esan behar da gure ikasleek ezer gutxi ikasiko luketela gizartean zailen dutenekiko kezka merezi duen garrantzia izango ez balu. Elkartasuna, sentiberatasuna eta konpromisoa, ezagutza, hausnarketa eta adibideen bidez bereganatzen dira. Betidanik, Portugalete historian balio horiekiko eta hiritarrik zaugarriekiko konpromisoa izan duen udalerrria dugu.

A) DIRU-LAGUNTZAREN ETA DEIALDIAREN HELBURUA

Oinarri-arauon helburua da Portugaleteko Udalak garapenaren lankidetzarako proiektuak garatzeko diru-laguntzak arautzea.

Garapenaren lankidetzarako proiektuak hauek dira: herri pobretuetan egiteko direnak, helburu izanik garapen ekonomiko eta sozial orekatua lortzea edo osasuna, hezkuntza eta giza-eskubideak sustatzea eta gobernantza demokratikoa lantzea, giza-taldearen protagonismoa eta ingurumena ere bultzatzen delarik.

Azkenik, ez dugu aipatu gabe utzi behar Portugaleteko Udalak eta diru-laguntzen entitate onuradunek aspalditik egin duten lana. Beraz, laguntza hauek gabe, hori guztia kaltetu eta amaigabe gera liteke.

Entitate onuradunek Portugaleteko herritarren artean hedatzeko eta sentibilizatzeko lana ere egin beharko dute eta horren konpromisoaren beren-beregizko aipamena dakar deialdi honek.

Hartara, garatzeko bidean dauden herrialdeekin lankidetzako proiektuak egiteko diru-laguntzen 2017ko deialdirako oinarri-arauak ezarri dira. Halaber, finantzatzeko modukoak izan litezkeen lankidetzarako ekintzabideak, entitate eskatzaileen betekizunak eta diru-laguntzak emateko prozedura eta irizpideak ere zehaztuta datoz.



B) ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izateko elkarteek, entitateek eta erakundeek nortasun juridikoa izan behar dute eta irabazi asmorik gabekoak, garapenaren lankidetzarako proiektuak garatzen eskarmentudunak eta Portugaleten egoitza soziala edo ordezkari-tza ere izan behar dute. Horretaz gain, herrian parte-hartze aktiboa izan behar dute. Horrek esan nahi du jarraitutasuna duen lana izan behar dela programak inplementatzeko orduan edo ekintzak garatzeko orduan. Halaber, ekintza horietan beste entitate batzuekin edo udalarekin elkarlanean jardungo dute jarraian.

C) ENTITATE ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

1. Legez egon behar du erata eta bere sorreratik hiru (3) urte, bederen, igaro behar izan dira.
2. Helburu izan behar du garapenaren lankidetzeta eta herrien arteko elkartasuna sustatzea.
3. Egoitza soziala edo ordezkari-tza Portugaleten izan behar du eta herrian ere parte-hartze aktiboa izan behar du.
4. Bere helburuak beteko direla bermatzeko nahikoa azpiegitura izan behar du.
5. Egiatzatu behar du eskarmentua duela lankidetzan, gutxienez, lankidetzan espezialduak diren hiru erakunde publiko autonomiko, nazional edo nazioartekotan parte hartu izanagatik.
6. Aurrez jasotako udalaren diru-laguntzen justifikazioaren jakitun egon behar du.
7. Eskabidea egiten duen egunean betebeharriskalak eta Gizarte Segurantzaren agiriak eguneratuta dituelako egiaztagiria aurkeztuko du.
8. Otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeko 6. azken xedapenari jarraiki, zeinen bidez 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren 50. artikulua aldatzen baita, ezingo dute pertsona fisiko edo juridikoek deialdian parte hartu, zigorrak dirauen bitartean, administratiboki zigortuta badaude sexu-diskriminazioagatik otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki.

D) DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Diru-laguntzen esleipena irizpideok aintzat hartuko dira, era homogeenan neurtuta:

1. Lankidetzarako proiektuetarako eskarmentu egiaztatua. 10
2. Aurkeztutako proiektua kudeatzeko gaitasuna. 10
3. Esku-hartzeko eremuan bitartekoak eta ahalmena garatzeko proiektuak, diru-laguntzaren helburua behin amaituta jarraitzeko aukerak badaudela jakinda. 10.
4. Esku-hartzeen gizarte jasotzaileek gizarte eta hezkuntza-eragileak eta teknikariak gaitzeko abagunea proiektuak emanez gero. 10.
5. Biztanlerik baztertuenenganako bereizketa positiboa duten neurriak. 10
6. Biztanlerik baztertuenenganako bereizketa positiboa duten neurriak, generoagatiko bereizketa desagerrarazteko. 10
7. Jarraitutasuna, egonkortasuna, urteaniztasuna. Aurreko urteetan finantzaturiko proiektuek edo horrengo urteetan egiteko daudenek lehentasun handiagoa izango dute proiektu berriek baino. 10
8. Gure udalerrian garatutako esperientzia edo bitartekoetatik ateratzen diren proiektuek metodologia-aldaketa eta elkarrenganako ikaskuntza baldin badute. 10
9. Udalak osorik edo zati garrantzitsu batean bere gain har ditzakeen proiektuak



baloratuko dira. Halaber, tokiko administrazioen arteko itunaren ondorioz sortu ahal direnak ere baloratuko dira. 10
Proiektuek diru-laguntzarik jasotzeko, 90 puntutik 50 puntu, bederen, lortu beharra dute.

E) DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntzak gehienez 20.000 eurokoak izango dira.

Diru-laguntza ekonomikoak aurrekontuko esleipenera daude mugaturik. Eskatutako diru laguntzek urterako, kurtsoan, aurrekontua gailentzen badute neurriok hartuko dira: 50 puntu gutxienez lortu duten proiektuetan aurrekontuko disponibilitatea gainditu ezean, lehentasuna emango zaie behin irizpideak aplikatuta baloraziorik onena lortu duten proiektuei.

F) ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak nahitaezko agiriekin batera entitatearen legezko ordezkariak duen pertsonak sinatu behar izango ditu eta tokiotan aurkeztuko ditu:

- Udaletxeko Erregistro Orokorra. Solar plaza z. g. (8:00etatik 14:00etara)
- Herritarren Arretarako Informazio Bulegoa. San Roke plaza z. g. Arratsalde, 15:00etatik 20:15era eta larunbatetan 9:30etik 13:45era.
- Administrazio Publikoen Administratibo Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua dakartzan tokietan.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri-arauok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita 2017ko azaroaren 30era artekoa izango da.

G) AGIRIAK

Eskabideekin batera agiriok aurkeztu behar dira:

1. Elkartek, Entitateak edo Erakundeak baimendutako arduradunak sinaturiko eskabidea. Betekizun hau bete gabekoak kanpoan geratuko dira.
2. Estatutuen fotokopia eta Elkarteen Erregistroan inskribaturik dagoelako ziurtapena.
3. Eskabidea egiten duen egunean betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzaren agiriak eguneratuta dituelako egiaztagiria aurkeztuko du.
4. Elkarteen jardueren oroit-idazki deskriptiboa eta iazko balantze ekonomikoa.
5. Proiektu bererako, beste erakunde batzuei eskatutako diru-laguntzen aitorpena edo jasotakoarena, diru-laguntzarik eman badiete.
6. Zinpeko aitorpena egiaztatzeko elkartea ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean. Halaber, bere jarduna debekatzen duen legezko agindupean ere ezin da egon otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik.
7. Diru-laguntzeko jardueren oroit-idazkia. Bertan, eskaeraren zenbatekoa, proiektuaren helburak, kokapena, erakunde parte-hartzaileak, lortutako finantzaketa, esku-hartzerako eremuaren deskripzioa, laguntza jasoko duten biztanleak, burutzeko epeak eta proiektuan zein balorazioan gizarte onuradunaren parte-hartzea ere xehetasun handiz azalduta joango dira.
8. Proiektuaren laburpena egiteko galdetegia bete behar da. Galdetegi hori deskargagarri dago Portugaleteko Udalaren webgunean "izapidetza" sailean.
9. Gizarte Parte-Hartze eta Berrikuntza Sailak espedientearen instrukzioa egitean eska lezakeen edozein agiri.



10. Entitate eskatzaileak diru-laguntza hau jaso badu 2016. urtean, portugaletarren artean egindako hedakuntza eta sentsibilizatze jardueraren gaineko oroit-idazkia.
11. Entitate eskatzaileak diru-laguntza jasoz gero 2017an, portugaletarren artean egingo lukeen hedakuntza eta sentsibilizatze proiektuaren gaineko oroit-idazkia.
12. Espedientea kudeatu bitartean Portugaleteko Udalak eskatzen dituen agiri guztiak.

Eskatutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik egon ezean entitate eskatzaileari eskatuko zaio 10 egutegi-eguneko epean dokumentazioa osa dezala, errekerimenduaren jakinarazpen-egunaren hurrengo egunetik zenbaturik. Hori guztia egin ezean, eskabidea ez da aintzat hartuko.

H) PROIEKTUAK AZTERTUTA HAUTAKETA-PROZEDURA ETA DEIALDIAREN EBAZPENA

Teknikariek deialdi honetan aurkeztutako proiektuak ebaluatuko dituzte. Izan ere, beste entitate edo langile espezialdu batzuek ere jo dezakete informazio eske. Teknikari horiek, dagokien artikuluetan ezarritako irizpideen arabera, balorazio gehien lortu duten eskabideei buruzko txostena Portugaleteko Udalaren Hiritarren Parte Hartzerako Batzordean edo Alkatezkan mahairatuko dute.

Udalaren Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz edo Alkatezako Dekretuaren bidez, diru-laguntzak emango dira, dagokion aurrekontuko diru-sailean esleitutako zenbatekoa mugatzat hartuta.

Eskabideak ebazteko eta entitate eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea 2017ko abenduaren 31n bukatuko da. Ebazpenaren jakinarazpena indarrean dagoen administrazio prozeduraren araudiari jarraiki egingo da.

I) AURREKONTUKO KREDITUA

Finantzaketa egingo da gehienez 85.000 euro izango duen aurrekontu kreditu baten kargura, 01 9240 491.01 aurrekontu atalaren kargura (Garapenaren lankidetzak. Parte Hartzea eta Berrikuntza Soziala).

Gehienez onartuko diren zuzeneko gosteak emandako diru-laguntzaren % 5koa izango da. Zuzeneko gostetzat joko dira administrazioak eta kudeatzekoak, baldin eta proiektuari zuzen lotuta baldin badaude, entitate eskatzaileak identifikatu, formulatu, jarraitu eta ebaluatu ahal izateko.

Diru-laguntza hauek bateragarri dira beste entitate publiko edo pribatu batzuek ematen dituzten beste laguntza edo diru-sarrerak mota batzuekin; halarik ere, proiektua ezin izango da gainfinantziaturik egon.

Baldin eta, diru-laguntza bat baino gehiago jasota, proiektuak gainfinantzazioa edukiko balu, onuradunak itzuli egin beharko luke Portugaleteko Udalak emandako zenbatekoaren zati bat, finantziatutako kopuru guztiaren eta Udalak emandakoaren heinekoa.

Behin diru-laguntza lerro hau ebazteko aldia amaituta eta diru-laguntzak banatuta eman daitekeen gehieneko zenbatekoa agortu ezik esleitu gabeko kopurua beste diru-laguntza batzuei buruzko ebazpenetan erabili ahal izango da.

Diru-laguntza aldi bakar batean jasoko dute onuradunek, behin emateko ebazpena eginda, diru-arguntzari atxikitako jarduketak burutu ahal izateko beharrezko finantzazio gisara.

Kreditu eskuragarria: 85.000 €.



J) DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunek burututako jardueren oroit-idazkia eta udalak emandako funtsen aplikazioaren justifikazio dokumentala aurkeztu behar izango dituzte. Hala eta guztiz ere, Udalak edo berak baimendutako entitateek ere noiznahi kontrolak egin ditzakete.

Diruz-lagundutako proiektuak aldatzeak edo proposatutakoak ez diren beste jarduera batzuetarako, funtsak erabiltzeak berekin dakarte, ezinbestez, aurretik, Sailaren onspen zehatza.

Diruz-lagundutako proiektuen bitarteko oroit-idazkiak eta gastu-aurreikuspenak datorren ekitaldiko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Jasotako diru-laguntzaren erabilera agiri bidez justifikatuko da diruz lagundutako proiektua bukatu ondorengo sei hilabeteetan. Agiriekin batera txosten ekonomikoa zeinen eredia Portugaleteko Udalaren webgunearen “Izapideak” atalean herritarrentzat eskuragarri baitago, aurkeztu beharko da.

Dena delarik ere, entitate onuradunak Udalari ere eska diezaioke justifikaziorako luzapena, hots, hiru hilabete baino gutxiagokoa, epe barruan justifikazioa ez egiteko arrazoiak azaltzen dituen txostena aurrez aurkezten badu.

Diruz-lagundutako proiektuak aldatzeak edo proposatutakoak ez diren beste jarduera batzuetarako, funtsak erabiltzeak berekin dakarte, ezinbestez, Portugaleteko Udalaren onspen zehatza. Helburu, jarduera, biztanle onuradun edo kokapenean moldaketarik badago, edota onetsitako diru-sailtako % 10eko aldaketarik badago, lehenik eta behin, eskabidea egin behar da eta bigarrenik, Udalaren beren-beregizko onarpena behar da. Ordea, gainerako moldaketen berri eman besterik ez da egin behar.

Justifikatzeko epeak igarota, gastatu gabeko zenbatekoak edo onetsi ez diren jardueretan erabiliak badira, Portugaleteko Udalari itzuli behar izango zaizkio.

Justifikazioa ez betetzeak entitateari gaitasungabetzea ekarriko dio. Horren kariaz, ezingo du Portugaleteko Udalaren diru-laguntzarik jaso eta Udalak, bere aldetik, beharrezko deritzen ekintza legalak ere egin ahal izango ditu.

K) LANKIDETZAREN SUSTAPENA PORTUGALETEN

Entitate onuradunek, berariaz, Portugaleteko Udala babeslea dela adierazi behar dute jarduerak hedatzeko eta zabaltzeko orduan baita argitaratzekoan ere. Sustapen-elementuetan eta karteletan, testu edo agirietan ere agertu behar du jarduera diruz lagunduta badago.

Justifikatzeko oroit-idazkiak, Portugaleteko herritarren artean diruz lagundutako jarduera hedatzeko eta sentsibilizatzeko ekintza-plana azalduta izan behar du. Aipaturiko ekintza-plan hori diru-laguntzarako eskabidearekin batera aurkeztu beharra dago. Oso garrantzizkotzat joko dira Portugaleteko hezkuntza guneetan burutuko direnak, helburua delarik gazteen arteko elkarlanarekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa sustatzea. Proiektuak Portugaleteko hezkuntza guneetan burutu ahal izateko, entitateak elkarlanean aritu ahal izango dira diru-laguntza hauen onuradunak diren beste entitate batzuekin.

L) ARAUDI APLIKAGARRIA

Diru-laguntzek araudi hau beteko dute eta, horretaz gain, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusia, ondorio horietarako onetsiko den udal ordenantza orokorra eta aplikarriak diren arau orokor zein prozedurazkoak ere bai.



Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Portugalete, 2017ko azaroaren 15a. Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugaleta